

IKT sektorea euskal ekonomiak 2005ean sortutako aberastasunaren %3,8 izan zen

IKT sektorearen indarra berrikuntzan eta I+Gn nabarmendu egiten da, sektore guztien batez bestekoaren gaineratik

Eustaten datuen arabera, IKT sektorea (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia), milaren bat enpresa, Euskal AEko BPGren %3,8 izan zen 2005ean

Jarduera adarrei begiratuz gero, zerbitzuen sektorean kontzentratzen da enpresa horien %80; zehazkiago, informatikan eta makineria eta ekipoaren alokairuan; hauek 1.411 dira, guzti-guztiak 2.001 direlarik.

IKT sektorearen negozio-zifra 4.443 milioi euro izan zen 2005ean, 1.927 balio erantsiaren terminoetan. 23.406 pertsona enplegatu zituen (langile okupatuaren %2,42), 6.872 industrian eta 16.534 zerbitzuetan aritu zirelarik.

1. taula: IKT sektorearen magnitude nagusien bilakaera, eskualdeka eta jarduera sektoreen arabera, 2005ean

	Enpresak (kopurua)	Negozio kopurua	Balio erantsia	€ak milakotan Landunak (kopurua)
Sektoreak, guztira	164.086	-	51.110.318	965.358
IKT sektorea, guztira	2.001	4.443.073	1.927.413	23.406
Eskualdeka				
Araba	283	589.761	214.986	2.241
Bizkaia	1.200	2.438.511	1.110.822	12.983
Gipuzkoa	626	1.414.801	601.605	8.182
IKT SEKTOREA				
Industria	243	871.975	319.770	6.872
Zerbitzuak	1.758	3.571.098	1.607.643	16.534
Makinen eta ekipoen handizkako merkataritza	212	374.563	75.712	1.378
Telekomunikazioak	135	1.954.642	969.406	3.364
Makinen eta ekipoen alokairua eta Jarduera informatikoak	1.411	1.241.893	562.525	11.792

Iturria: Eustat


IKT sektoreko enpresek gehiago inbertitzen dute I+Gn gainerakoek baino

IKT sektorearen I+G gastua 74,4 milioi eurokoa izan zen 2005ean, hots, aurreko urtekoa baino %16 gehiago. Zifra hori enpresa guztien I+G gastuaren %11,4 izan zen. Enpresa sektorearen I+G gastuaren hazkundera %7,5 izan zen, eta IKT sektorean horren halako bi, %16,0.

IKT sektorean I+Gn aritu ziren langile kopurua 1.344 izan zen, dedikazio osoko baliokidetzan, 2005ean; 2004aren aldean %11,3ko hazkundera. Berriz ere, sektore honetako hazkunde-portzentajea enpresa sektorearen guztirakoa halako bi da, hori %5,5 izan baitzen.

IKT sektorean I+Gn aritu ziren langile kopurua 732 izan zen, dedikazio osoko baliokidetzan, 2005ean; 2004aren aldean %18,4ko hazkundea. 118 emakumeak izan ziren, lehengo urtean baino %28,3 gehiago.

1.grafikoa: Ikerkuntza eta Garapeneko (I+G) gastuaren eta langileriaren hazkundearen bilakaera, 2004-05, (%).



Iturria: Eustat

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoa eta IKTren artean. 2005ean, IKT sektoreko establezimenduen %31k berrikuntzako jarduerak egin zituzten; sektoreen guztirakoan %16,5ekoa izan zen portzentajea. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, lehenengo kasuan %58,3 izan zen ehunekoa eta sektoreen guztirakoan %31,6.

Berrikuntzako gastua 135,4 milioi euro izan zen; horietatik 122,3 10 enplegatu eta gehiagoko establezimenduetan.

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+Gko gastua negozio zifraren gainean (barne berrikuntzako eta I+Gko intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, IKT sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+bra gainerako sektoreetan baino.

2. taula: IKT sektoreko barne Berrikuntzako eta I+Gko intentsitatea, eskualdeen, jarduera azpisektoreen eta enplegu-estratuen arabera. 2005 urtea.


	Guztira		10 enplegatu eta gehiago	
	Berrikuntzaren garrantzia	Barruko I+Garen garrantzia	Berrikuntzaren garrantzia	Barruko I+Garen garrantzia
Sektoreak, guztira	1,55	0,6	1,84	0,8
IKT sektorea, guztira	2,94	1,64	2,91	1,71
Eskualdeka				
Araba	3,57	1,41	3,85	1,86
Bizkaia	2,04	1,08	1,85	1,05
Gipuzkoa	5,86	3,64	6,51	4,05
IKT SEKTOREA				
Industria	5,38	3,66	5,75	3,91
Zerbitzuak	2,38	1,18	2,25	1,2

Iturria: Eustat

IKT teknologien erabilera orokorra da, baina merkataritza elektronikoa gutxi erabiltzen da baita sektore honetan ere.

IKT teknologien erabilera oso zabalduta dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoaren erabilerak, gainerako sektoreetakoaren gainetik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau. Baliabide horren bidez salmentak egindako establezimenduak %4,7 izan ziren, eta erosketak egindakoak %40,7. Enpresaren tamaina kontuan hartuta, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, salmentak %13,4k egin zituzten eta erosketak %43,6k.

2. grafikoa: IKT teknologiak erabiltzen dituzten 10 enplegatu baino gehiagoko enpresak Euskal AEn eta Espainian 2005. (%)



Interneteko sarbidea baduten establezimenduen gaineko %.

Iturria: Eustat eta INE

Espainiako datuen aldean, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, Euskal AEko IKT sektoreko tasak goragokoak dira ia adierazle guztietan.

IKT sektoreak ondasunen kanpo merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua: Esportazioak 180 milioi izan ziren, guztirakoa 14.297; inportazioak 394 milioi, guztirakoa 14.537 izan zirelarik.

IKT sektoreko enpresek inportatuetan telekomunikazio ekipoak eta ordenagailuak nabarmentzen dira, guztien arteko %44. Esportazioen aldetik osagai elektronikoak nabarmentzen dira, %45.

Ohar metodologikoa:

IKT sektorea manufaktura eta zerbitzuetako sektoreek osatzen dute; beren jarduera nagusia Informazio eta Komunikazioaren Teknologien garapen, ekoizpen, merkaturatze eta erabilera intentsiboarekin lotuta dago.

IKT sektorea ELGEk bere egindako irizpideen arabera definitzen da. Informazioaren eta komunikazioaren industriarekin harremana duten jarduera ekonomikoak dira, bai industrialak, bai zerbitzuetakoak. Hona hemen, jarraian, sektore horretan sartzen diren jarduerak EJSN 93- 1. berrikustearen arabera: 3001, 3002, 3130, 3210, 3220, 3230, 3320, 3330, 5160, 5167, 6420, 7133, 7210, 7221, 7222, 7230, 7240, 7250, 7260.

Estatistika eragiketa hau Eustatek egindako ondoko inkestetatik eskuratutako informaziotik abiatuz egin da

- Jarduera ekonomikoen gidazerrenda
- Kontu ekonomikoak
- Industriari buruzko estatistika
- Merkataritza eta konponketaren gaineko inkesta
- Lanbide eta Enpresa Zerbitzuen Inkesta
- Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko (I+G) jarduerari buruzko estatistika
- Teknologia-Berrikuntzaren Inkesta-TBI
- Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta: Enpresak
- Kanpo-merkataritzaren estatistika

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tel.: Faxa:

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es